


CORRES - QUINTANA (IZKI)

Sendas de Ullibarri y Los arrieros



Encuadre geográfico

Este recorrido transcurre por el Parque Natural de Izki, entre los pueblos de Corres y Quintana pertenecientes a los Ayuntamientos de Arraia-Maestu y Bernedo respectivamente. Este bosque era explotado por 15 pueblos y se regía hasta el siglo XIX por las Ordenanzas del Monte de Izki, que datan de 1584. La Comunidad de Izki se dividía en dos Juntas; Junta de Abajo (Izki Bajo) y la Junta de Arriba (Izki Alto). La primera estaba presidida por Apellaniz, perteneciendo a la misma Maestu, Corres, San Román, Quintana, Markinez y Arlucea. Urarte, Urturi, y los pueblos trebiñeses de Pariza, Albaina, Bajauri y Obecuri formaban parte de Izki Alto. La parte de bosque enclavada en Trebiño no se incluye en los terrenos del Parque.

Izki presenta un relieve ondulado con desniveles poco pronunciados (600 m. Río Izki y 1.175 m. Monte Kapildui). El 60% del territorio del parque se enclava en la cuenca del río Izki, configurando una amplia cubeta de arenas muy finas y margas encajadas en un borde montañoso calizo muy erosionable. La disolución de las rocas por el agua ha ocasionado la formación de grietas y acanaladuras como en la Muela de S. Román o el Monte Soila.

Estos suelos arenosos han ocasionado el desarrollo de una singular vegetación.

Vegetación y fauna

Izki alberga en su interior el mayor bosque de roble pirenaico de Euskadi y quizá el más grande y desarrollado de Europa. Este árbol, llamado almez por los habitantes de estos pueblos (marajo en castellano y ametz en euskara) dominará en nuestro recorrido, no en vano recubre 3.500 Has. del parque. Además de este bosque aparecen en las cercanías de Corres pequeños bosquetes nada frecuentes de abedul y álamo temblón.

En cuanto a la fauna, es fácil escuchar el tamborileo y canto de los picos carpinteros o ver a el águila calzada o la culebrera (*guarrilla*), azor o gavilán. Entre los mamíferos se encuentran el jabalí, el tejón, gato montes, gineta y garduña. En el río Berrón también hay visón europeo y nutria.

RECORRIDO

0 Km. / 0 h. 0' . Nuestro recorrido comienza en **Corres**, pueblo en el que se encuentra el centro de interpretación del **Parque Natural de Izki**. Saliendo por su calle principal, enseguida veremos un poste en el que se nos indican las diferentes opciones en forma de senderos balizados que nos ofrece este parque. La primera parte de nuestro recorrido transita por la **senda 3** denominada *Ullibarri*. Dicha senda comienza tomando una pronunciada pista de cemento que rápidamente nos bajará hasta la zona de recreo de reciente construcción.

1 Km. / 0 h. 15' Pasaremos un pequeño puente y seguidamente continuaremos hacia la **derecha** siguiendo las indicaciones que hay en dicho cruce. Seguiremos el sendero junto al río, para enseguida cruzar la carretera que va de Corres a San Román de Campezo. El camino, en esta primera parte, es bastante llano, dejándonos disfrutar en toda su plenitud del colorido que nos muestra el bosque en esta época del año, destacando los rojizos abedules, los álamos temblones, y como no el protagonista de este parque de Izki, el marojo o roble pirenaico. Se considera, **el marojo de Izki**, como el más grande de Europa, tomando por ello una gran importancia.

Nuestro sendero continúa recto (dirección Oeste), obviando los caminos que nos salen hacia derecha e izquierda. A los pocos minutos, se estrecha el camino al llegar a una extensa campa repleta de otacas. En este punto rodearemos dicha campa, pudiendo observar como es un lugar elegido por los jabalís para hozar buscando raíces y bulbos.

3,5 Km. / 0 h. 50' Tras pasar una valla metálica, vemos como nuestro camino se estrecha aún más, para meterse definitivamente en el bosque. Hemos de estar atentos de seguir siempre el camino correcto marcado con puntos amarillos, el incorrecto lo está con unas X del mismo color. En este caso deberemos girar a la izquierda, por un camino que acompañará al arroyo Izki un buen tramo, pasando de una orilla a otra gracias a los puentes que encontraremos.


4 Km. / 1 h. Llegamos a un punto importante, el lugar en el que debemos dejar la "**Senda 3-Ullibarri**", para coger la denominada "**Senda 5 - Los arrieros**", este camino debe su nombre al uso que se le daba, tanto a este sendero, como al cercano *GR 38*, que no era otro que al transporte de vino hacia el norte y de pescado hacia el sur. En el cartel informativo nos indica que nuestro camino gira hacia la izquierda, tomaremos dicha dirección por una preciosa senda, que tras pasar un nuevo puente, nos lleva hacia un espectacular y solitaria haya, dejándola a nuestra izquierda veremos un nuevo cartel que nos indica la dirección correcta (Sur). Nuestro camino, en este punto, comienza a tener algún desnivel.

5 Km. / 1 h. 30' Tras unas suaves subidas y bajadas, llegamos a un cartel en el que se nos indica que, dejando nuestro camino, a 5 min. hay un ejemplar de roble catalogado como "**Árbol Singular**", tras visitarlo, volveremos a nuestro camino y vemos como la pista zigzaguea por una senda estrecha, hasta que definitivamente comienza a ganar altura, durante unos 20 min. tendremos que subir por un camino de buen firme, para una vez que llegamos a los 760 mts. ver como el camino se ensancha y deja de picar hacia arriba.

7 Km. / 2 h Tras pasar junto a un aparcamiento de cazadores, a los pocos minutos vemos un cartel que nos indica la proximidad del pueblo de Kintana. Ya solo nos faltará caminar un poco más, eso sí, reservando fuerzas para el final, ya que la entrada a **Kintana**, se hace por unas rampas de cemento relativamente fuertes.

KORRES-KINTANA (IZKI)

Ulibarri eta Mandazainak bideak



Kokapena

Ibilbide honek Izkiko parke naturalaren lurrak zeharkatzen ditu Korres eta Kintana herrien artean (Arraia-Maeztu udalbarrutiakoa lehena eta Bernedokoa bigarrena). Baso hau 15 herrik ustiatzen zuten eta Izkiko Mendiaren Ordenantzak erabilpenak eta eskubideak arautzen zituen joan den mendera arte. Izkiko Komunitatea erdibituta zegoen; Beheko batzordea (Izki Behea) eta Goiko Batzordea (Izki Goia). Lehenengoa Apiñaniz herriak presidentetzapean Maeztuk, Korresek, San Románek, Kintanak, Markinizek eta Arluzeak osatzen zuten. Bigarrena Urartek, Urturik eta Trebiñoko Parizak, Albainak, Bajaurik eta Obekurik. Gaur egun parkearen barruan ez dago Trebiñon kokatuta dagoen basoaren zatia.

Izki erliebe uhindua du, gora-behera txikiekin (600 m. Izki ibaian - 1.175 m. Kapildui mendian). Parke naturalaren hedaduraren %60 Izki ibaiaren arroan zehar hedatzen da. Alde hau kararizko mendien artean bildutako hondar oso mehez eta margaz osatutako kubeta zabal bat da; mendiek moldaketa karstikoa jasan dute arraila eta artekak sortuz hala nola Muela de San Roman edo Soila mendian. Areazko lur hauek oso landaretza berezia sorrerazi dute.

Landaretza eta fauna

Izkiren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko ameztirik handiena aurkitzen da. Zuhaitz nagusia ametza (*Quercus pyrenaica*) edo herria hauetan ahoskatzen duten moduan "almez" da. Gure ibilbidean nonahi ikusiko dugu. Ez da harrizkoa, 3.500 hektarea lur estaltzen bait du. Baso honetaz gain Korres inguruan oso arruntak ez diren lertxundia (lertxuna *Populus tremula*) eta urkidia (urkia *Betula pendula*) daude. Faunari dagokionez, errez entzuten da okila (okil ertaina batez ere) eta noizbehinka ikusi ere ikusten dira belatza, gabiraia eta arrano txikia eta sugejalea. Ugaztunen artean basurdea, azkonarra, basakatua, katajineta eta lepazuria aurkitzen dira. Berron ibaian ere bisoi europearra eta igaraba bizi dira, bakanak biak.

IBILBIDEA

1 Km. / 0 h. 20' Gure ibilbidea **Korres** herrian hasten da, **Izkiko parke naturalaren harrera etxea** bertan dago. Kale nagusitik irtenda, berehala parkeak eskeintzen dizkigun bide markatuen aukera ezberdinak agertuko dira egurrezko habe batean. Gure ibilbidearen lehenengo zatia 3. bidetik doa, **Ullibarri** bidetik hain zuzen. Xendera honek porlanezko pista aldapatsutik jeistera behartuko gaitu, sondeo lanak egiten ari diren tokia ezkerretara utziz, eraiki berria den jolas eremurantz.

1 Km. / 0 h. 15' **Jolas eremura** heldu baino lehen, zubitxoak gurutzatuko dugu eta eskuinera joko dugu egurrezko oholetako iragarpenei kasurik egiten. Erreka gure eskuinetan, jarraituko dugu bidea eta berehala **Korres - San Roman errepeidea** gurutzatuko dugu. Metro batzuk aurrerago zubitxo bat eta **Izki** ibaia gure ezkerretan dugularik jarraituko dugu. Lehenengo zati honetan bidea nahiko laua da, eta urtaro honetan basoak erakusten digun kolore aniztasuna bete bete disfrutatzeko parada izango dugu. Kolore hauen artean, lertxunen eta urkien gorrixkak, eta nola ez, ametzaren marroixka. **Izkiko ameztia** Europako handiena jotzen dute batzuek eta, beraz, oso garrantzitsua da.

Gure ibilbidea zuzen jarraitzen du (Mendebalde norabidea), ezkerretara eta eskubitara ateratzen diren bideak baztertuz. Minutu batzuen buruan bidea estutuko da otakaz beteriko belardi zabal batera ailegatu arte. Belardia inguratuko dugu, eta ikusi ahal izango dugu basurdeek bulboak eta sustraiak aurkitzearen egindako indusketak.

3,5 Km. / 0 h. 50' Metalezko hesia pasatu ondoren gure bidea estutuko da are gehiago, basoan barrena behin betikoz murgiltzeko. Adi egon behar dugu bide zuzena jarraitzeko, borobil horiek adierazten digutena. Bide okerra, aldiz, X gurutzeek. Berehala ezkerretara egingo dugu, **Izki** erreka albotik doan xenderatik. Zubi batetik beste aldera pasatuko dugu gero.

4 Km. / 1 h. Berehala toki garrantzitsu batera iritsiko gara, **Ullibarri Bidea-3** utzi behar duguna eta **Mandazainak Bidea-5** hartzeko. Bide hau GR-38ren antzera ardoa eta arraina garraiatzeko erabiltzen zen. Informazio txartelak gure bideak ezkerretara egiten duela adieraziko digu, bidexka eder batean sartzeko. Berrito beste zubi bat gurutzatu beharko dugu pago ikusgarri eta bakarti baterantz, ezkerretan utziz. Guk Hegoalde norabidea hartuko dugu. Toki honetan aldapa txikiak agertzen hasiko dira.

5 Km. / 1 h. 30' Gorako eta beherako aldapa batzuen ondoren **Zuhaitz Berezia** iragartzen digun kartelera iritsiko gara. Haritz ikusgarri hau bisitatzeko 5 minutuko desbideraketa egin beharko dugu. Berrito gure bidean pistak zig-zag egiten du eta 20 minutuz aldapa leun batez egingo du gora. Bidea oso ona da eta 760 metrotara iristean berrito laua eta zabala bihurtzen da.

7 Km. / 2 h **Ehiztarien aparkalekuaren** ondotik pasatutakoan **Kintana** herria gertu dagoeneko kartela ikusiko dugu. Pixka bat ibili beharko dugu, baina indarrak bukaeran ere beharko ditugula gogoratuz, **Kintana** herriko sarrera porlanezko aldapa handi batetik delako.